

## **GALAKTION TABIDZE, GEORGIAKO BOZ HILEZINA**

XABIER KINTANA

Herrialde guztietan, toki onez gainera, ba dira, era berean, pertsona bikain ugari ere, urruntasunak eta jakinezak maizegi horien berri estaltzen diguten arren. Bere odoleko alaba kuttunez besterik ardurazten ez zen ipuineko amordearen antzera, itxurazko kultura unibertsal batzu ere beren baitako balioak predika-ereiten aritu dira luzaro gure artean, horiez gainera, munduan Mari Errauskinik ere badela malizioski ezkutatuz; eta ezezagunak izateak ez du inondik esan nahi txarragoa denik, eta behin ezagutu eta gero, sarritan horiei kristalezko zapatatxoa bat ere gaizki ez doakiela ikusten dugu. Egiazko unibertsaltasunak, bestalde, mugak ireki eta panorama berriak, geografikoak eta kulturazkoak, eskatzen ditu, betiko ezagunetan gelditu gabe.

Bai, munduak ate eta leiho asko ditu, eta hertsiegiak ginateke, probintzianoegiak, giza kultura osoa Europaren mendebaldeko hiruzpatalau nazioen emaitza hutsez osamaiturik dagoela usteko bagenu. Boz eta kantu joriegiak ditu gizateriak, horiek guztiok mintzaira gutxi batzutan murrizteko. Eta horietako bat aurkeztu nahiak bultzatu nau lerro hauek idaztera: Galaktion Tabidze, idazle georgiarra, hain zuzen.

Galaktion Tabizek, 1891an jaioak, bere lehenbiziko poema-liburua 1914ean argitaratu zuen. Hartan poesiarako talentu aparta erakutsi zuen jadanik, Georgiako letrei horizonte susmaezinak eskainiz. Sentikortasun bereziko gizona omen zen Galaktion, eta georgiar poesia erabat berriztatzen eta eguneratzen ihardun zuen. Zerabiltzan gaiak betidaniko giza sentimendu eta egoera iraunkorrak ziren, baina boz berriaz adieraziak, georgiar hizkuntzaren melodia eta baliabide harrigarrienak erabiltzen maisu aparta zen eta.

Urriko Iraultzaren hasieran Sankt Petersburgen aurkitzen zen, eta gertakari horrek bizitza betiko markatu zion. Iraultza soviatarrek poema ederrak iradoki zizkion, baina Mayakovsky eta beste batzu ez bezala, Galaktion ez zen inoiz erori ideologia baten apologista itsua

izateko tentaldian. Bestelako gizartea zekarren iraultza hura kantagai zuen, noski, garai eta balio berrien aldaketa hari oldarra eta suharta-suna baitzerizkion, baina horrek ez zion behin ere ahantzerazi gainerako giza tematika ugaria: maitasuna, natura, bizia, heriotza, nostalgia, sorterrria, bere inguruko herritarrak...

Idatzi ia-ia obsesioz egiten zuen, barrurik uholdeka zetorkion jario hari bide emateko. Eta haren obrek jendea sorgindu eta erabat bereganatu zuten. Geroagoko poeta georgiar guztiek, bai eta errusiarrek ere, Galaktionen poesian, bazterrezineko mugarri ukanen zuten, iradokizun-iturri ezin agortuzkoa. Lan ongi oparoa gainera, bai zenbatekoaz eta bai nolakoaz ere. Aski biz haren idazlan osoek hamabi tomo betetzen dutela jakitea.

Georgiaren mendebaldean, Megrelian, Galaktionek egurrezko uda-etxetxo bat zuen, lautada bakarti baten erdian, eta hartara biltzen zen, idazgai berrien bila. Haren heriotzaz gero, etxe hori museo bilakatu da, eta 1981.ean, Georgiara eginiko bigarren bidaian, hura bisitatzeko aukera izan nuen. Etxeak. Doktor Zhivago-ren filmeko basetxearen itxura zuen, eta, bere xalotasun apalean, hunkitu egin ninduela aitortu behar dut. Barruan, haren bizitzako filmaketa batzurekin batera, Galaktionen boza ere entzun nuen, poema batzu esaten: gogoan dut trumoi batena bezalakoa zela, ozentasun eta indarrez ase, izpiritu gorpuztua benetan.

Museo berean, haren heriotzan, 1959.ean, poetaren hiletan izandako jende-segizio itzela ere ikusi nuen filmaturik. Tbilisi osoa, Georgiaren hiriburua, haren zerraldoaren atzetik zihoan, konta ezineko agur zirrargarrian. Gizonezko eta andrazko askoren anitz aurpegiri negarra zerion. Georgiarrek lotsarik ez beren sentimenduak erakusten.

Gure garaiko kartveliar poeta haundienaren mendeurrena igaz bete zen, georgiarrek burujabetasuna berriz eskuratzen zuten urte berean. Georgiak, egia esan, ahaleginak egin ditu data berezi horrek merezi bezala ospatzeko, baina oraingo egoera politiko larriak eta gerra zibilak ez diote bat ere erraztu omenaldia.

Georgiarrek euskaldunok senidetzat gauzkate, eta ez legoke ongi guk, berandu xamar bada ere, hizkuntza aldaturik, poeta erraldoi horren oihartzuna geurera ez bagenekar. Izan ere, Galaktion Tabidze, bere poemetan, heriotzaz haraindiko boz bizia dugu, giza gai betikorrek bihotzaz eta irudimenez kantatzen jakin duten poeta bikainen antzera.

Hemen eskaintzen ditudan poemok, georgiaratik euskaratuak, as-

paldion itzuliak nituen, baina georgiar poesiaren antologia osoa argi-ratu arte luzaroago ilunpean geldi ez daitezen, poetaren mendeurrenaren omenaldi gisa, orain plazaratzea erabaki dut. Segur naiz hari eskaintzen diogun oroitzapen honekin, berak, ordainez, guztiok izpiri-tuz aberastuko gaituela.

1992-12-22

### Gaua eta ni

(*me da ghame*)

Orain lerrook idaztean, gauerdia sutan dago, urtzen,  
Haizeak leiho irekitik zelaietako kontuak dizkidala ekartzen.  
Ilargiak zilarrezko zapia jautiki dio, horri atxekiz ingurua,  
Haizeak, ene leiho aurrean, erauntsiz, lilak darabiltza dardar.  
Zerua, pilarez bilbaturik, uso-koloreko, holaxe da, urdinez,  
Horrela, sorginkeriaz aserik, gutun honen errima legez.  
Argi mistiko honekin beztiturik dago giroa  
Holaxe, gogoetaz beterik, gau honetan ene bihotza bezala.  
Nik ere bihotz barruan sekretu bat daramat aspalditik,  
Munduko inori ez diot aitortu, eta haizeak ere ezin hura uki.  
Zer dakite ene lagunek bihotza mingotsez beterik ote dudan,  
eta mendetan zehar zer ote datzan haren barruan?  
Pozaldiak bihotzaren gogoeta beltza ezin ken diezadake,  
Sekretua ezin dute atera emakume baten laztan- besardadek.  
Ez eta lotako zizpuruak ere, ez halaber ontzi ardoz aseak,  
ezingo didate hura kendu, bihotz zoko ilunetik, han baitaukat.  
Soilki gauak, logabezi denboran zilarkara leihoan,  
dekit sekretu neurea, dena baitaki, bere zurian gauak.  
Jakin daki zurtzik negoela, nola penatzen naizen, oinazeturik.  
Gu biok baikara munduan bakarrak: Ni eta gaua, gaua eta ni!

1913

### Maitasunik gabe

(*usiq'varulod*)

Maitasunik gabe,  
zeru gainean eguzkirik ez,  
haizetxorik ez dabil, ez oihanak dardar egiten,  
poztasunez...

Maitasunik gabe ez dago  
 edertasuna ez eta  
 hilezintasunik ere,  
 maitasunik gabe.  
 Oso bestela da baina azken  
 maitasuna,  
 udazkeneko loreak  
 politasunez lehena gainditzen duenez,  
 hark ere ez ditu  
 grina eroak erakartzen,  
 ez gazte-apetak, ez basa-bozak  
 hark ez ditu deitzen...  
 Eta udazkeneko haran  
 hotzetan hazita,  
 berak udaberriko lore bigunen  
 antzik ez du bat ere...  
 Haizetxo leunen ordez, ekaitzak  
 du laztantzen  
 eta grinan lekuan, xera ixilak  
 inguratzen.  
 Eta zimeldu, zimeldu egiten da maitasun  
 ezkena, zimeldu tristuraz, gozoro, baina  
 pozik gabe.  
 Eta ez dago munduan  
 hilezintasunik ere,  
 hilezintasunik ez baita  
 maitasunik gabe.

1914

**Zer ordu da?***(romeli saatia?)*

Orain, dudarik ez, berandu da.  
 Samintasunak ene bihotzean eman du gaua...  
 Halere ez nau baketan uzten kezka mingotsak-  
 Zer ordu da? Zer ordu da?.

Leiho ondoan nago, gauak ez du aldegin,  
 udazken osoa leporatu dit.

Hirurak besterik ez?  
 Zer ordu da? Zer ordu da?

Ba liteke ordu biak eta hogeizate,  
kanpora begira nik-berriz ere dena ilun.  
Geltokitik txilioka ari da hamahirugarren sirena.  
Zer ordu da? Zer ordu da?.

Pentsamendutan murgildurik dago, ilunik, korridorea,  
gaueko gurtzainak lekurik ezin du aurkitu.  
Berriz ere, nerbiotsu, jotzen du telefonoak-  
Zer ordu da? Zer ordu da?

O Jainkoa! Odolezko euri hau,  
alkitran-uholde gisa, ez al da inoiz amaituko?  
Ez, ez du behin ere argitu nahi gau gorrotagarriak!  
Charles Baudelaire zen: "Mikatz eta maitea,  
mozkortze-ordua, ardo-ordua da!".  
Horrela erantzun zion berak galdera honi-  
Zer ordu da?

1914

### Mtatsmindako ilargia<sup>1</sup>

(*mtatsmindis mtvare*)

Ez da inoiz ilargia jaio hain barerik!  
Gauerdiaren lira, ixiltasunez jantzirik.  
Haizeaz itzal urdinak erakartzen ditu, zuhaitzetan ehoaz...  
Behin ere ez naiz hain zeru goxoaz oroitzen, ez hain mutuaz!  
Ilargiak lilia dirudi, distira zurbilezko idunekoa,  
Bere argiaz inguratua, amets arina bezalakoa,  
Nabari dira, xuritan, Mtkvari<sup>2</sup> ibaia, Metekhiko<sup>3</sup> eliza...  
Oi! inoiz ez zen ilargia jaio, hain ezta!  
Hemen, ene ondoan, asaben itzalek lo egiten dute,  
Hemen hilerri tristeon, arrosa-kamamila artean, errege-ametsez.  
Ñir-ñir, izarren leinuru alai...  
Barataxvili<sup>4</sup> hemendik zebilkeen, poeta, zurtzik, bakartia...

(1) Mtatsminda: Tbilisi, Georgiaren hiriburuaren ondoko mendia. Georgiaraz mta-  
tsminda, hitzez hitz mendia saindua<sup>1</sup> da.

(2) Mtkvari: Tbilisi zeharkatzen duen ibaia.

(3) Metekhi: XII mendeko eliza. Mtkvari ibaiaren ondoko labar gainean kokatua.

(4) Barataxvili: Nikoloz Barataxvili, (1817-1845) Georgiako poeta erromantikoa.

Bere poema batetan (Mtatsminda gaineko arratsa, euskaraz *Egan*-en 1984.ean argitaratua) arratsetan mendi horretan zehar ibili ohi zela kontatzen zuen.

Eta ni ere kantuz hil nadila, aintzirako zisne tristetzat,  
 Esanez gero, solki, nola dion begiratu ene arimari gau goitiarrak.  
 Loari hegoak zeruz zero nola zaizkion hazi,  
 Eta ametsen bela urdinak nola dituen eraitsi;  
 Eta Herio hurbilak alda dezakeela, hil zorian,  
 Zisne agoniatsuaren doinua, haren arrosa-uholdeak.  
 Nik dakidan bezala, itsaso honetan hazitako gogoarentzat  
 heriobidea ez dela deus, arrosabide ez bada,  
 Eta bide bereon poetek eginen dutela are kantu ausartagorik,  
 Eta inoiz ez dela izan hain gau leun ixilik.  
 Eta ni, oi itzalok, zeuen ondoan, herioaren zain,  
 Errege nauzue, poeta, eta kantari, hilko naiz,  
 Eta menderen mendetan ene lirak iraunen du zuekin...  
 Ez baita inoiz ilargia jaio, hain barerik!.

1915

### Zaldi urdinak

(*lurdja tzkhenebi*)

Laino-multzo gisa, eguzki jaitsiaz tindaturik,  
 distirutzen zuen bazterrak, betierako herrialdean!  
 Ez zen mugarik ageri, ezin nuen ezer ikusi,  
 ixiltasun hotz eta desertuaz besterik.  
 Ixilaz eta hotzaren lasaikeriaz landa,  
 betiereko herrialde izoztuan mina besterik ez da!  
 Ez dihardu hire begietan suak, hilobi hotzean hatza,  
 hilobi hotzean hatza eta arima ez dago pozik.  
 Aurpegi eroen hezurtzen oihanekin.  
 egun ahituak amiltzen dira arinka!  
 Itzalen irudiez-nire zaldi urdinen gainean  
 zatozte hemendik etzatera! Hemen dira guztiak!  
 Segunduak amiltzen dira, baina damurik ez nik:  
 Ezin da negarraz busti nire betiereko burkoa,  
 grina ezereztu egin da, nola gaueko ametsa,  
 arimaren boza bezala, otoitzaren sugarretan.  
 Suaren inorako dantza bezala, nola zorionaren bira,  
 zaratotsez hegaz doaz, lasterka, zaldi urdinak!  
 Lorerik ez dago, bakerik ez- ametsa!  
 Orain hilobia duk heure lasaigarria!

Zeinek ezagutzen ote du hire aurpegia? Hire izena nork esanean?  
 Nork entzuten du hire deia, dei horri nork sinetsiko?  
 Inork ez hau kontsolatuko harriduraren besartean,  
 kimera ezezagunak lo dautza sokonune beltzetan!  
 Bakarrean, argi jarioa ezin izan du ezerk estali:  
 Zentzurik gabe, desertuan ari da higitzen!  
 Aurpegi erotuen hezurtzen oihanekin  
 egun minduak agertzen dira eta infernuan ezkututzen.  
 Lainoaren erasoan, bakarrik, betiereko herrialdean,  
 goian edo hilobian, madarikazioak jorik,  
 Itsasoaren harat-honata bezala, nola zorionaren bira,  
 zaratotsez hegaz doaz, lasterka, zaldi urdinak!.

1915

Meri<sup>1</sup>

Gau hartan ezkontzen hintzen, Meri!

Meri, hire begien distira  
 zerutiarra, gau hartan,  
 tristea zen, udazkena bezala.

Leherkor eta dardar  
 sutan ziren gar argi multzoak  
 baina hire aurpegia, kandelak baino  
 zegoen ezkututik are zurbilagoa.

Sutan ziren eliz orma eta kupula,  
 eta arrosei lurrin goxoa zerien  
 baina itxaropenaz etsiriko andreek  
 beste otoitz sendaezina dute.

Hire zin oharkabea entzuten nuen...

Meri, maitea! Gaur ere ezin dut hura sinetsi...

Ba dakit zer den samina baina ez dakit  
 hura dolu ala ezkontza ote zen.

Harrizko lauzen ondoan norbaitek mingoski negar  
 eta eraztunaren bitxiak haizean galtzen zituen...

Ba zen han zurztasunik, eta urrikia ere ba zen  
 eta ez zuen ematen hura jaieguna zenik ere.

(1) Meri: Meri Xervaxidze. Andre hau Galaktionen maite platonikoa eta poesi alo-  
 sia izan zen, edertasunez mirezgarria. Oraintsu arte Parisen bizi izana, eta adina gora  
 behera, behialako edertasun hura ez omen zuen inoiz erabat galdu.

Elizatik irtenda, neure urratsek, presaka  
norantz nideramaten? Nekez nekusan ezer!

Kalean haizea gogor zebilen hegaka  
eta euria ari zen, beti euria, atergabe.

Nabadia<sup>2</sup> soingainean jantzi nuen,  
burua gogoeta zimeletan zebilkidala,  
O! Hire etxea! Hire etxea bertan.

Haren orman sostengu hartu nuen, ahiturik

Honela, nahigabeturik, hantxe egon nintzen luzaz,

eta ene aurrean makal beltz zuzenek  
bere hosto ilunei xuxurlarazten zieten,  
hegan hastera doan arranoak bere hegoei bezala.

Zer xuxurlatzen zuen makalaren abarrak?

Zer? Nork daki! Nork daki, Meri!

Zoria, ohoratu ez ninduena,  
haizeak zerabilen, orbeltzat, noragaberik.

Esadan: bat-bateko distira hura

zergatik itzali zait honela? Nori nago erreguka?

Zergatik hasi da nire ametsa murmurikatzen, hegan hastera  
doan arranoak bere hegoei bezala?

Edo zerura zergatik ari nintzen irritsu begira?

Edo zergatik hartzen nuen argi keinukaria?

Edo "Ehorzlea" zertarako ni kantatzen ari?

Edo nork entzuten zidan neure "Gaua eta ni"<sup>3</sup>.

Haizeak erauntsiz euri-tanta lodiak zerabiltzan,

bihotza ere halaxe irten zitzaidan,

eta ni negarrez hasi nintzen, errege Lear modura<sup>4</sup>,

Lear hura, guztiak abandonatua.

1915

## Sorterria

(mamuli)

Belar ihintzatuena gainean oinak ortozik  
ezartzen ez baditut –zer dut orduan sorterria?

(2) Nabadi: Georgiar soingaineko beltz zabala, artilez egina. Kaukasoko artzainen ohizko jantzia da.

(3) Ehorzlea eta Gau eta ni Galaktion Tabidzeren poema biren izenburuak dira; bigarrena bilduma honetan ageri da; lehena ordea ez, luzegia izaki.

(4) Errege Lear: Shakespeare-ren teatro-lanaren pertsonaia.



Asaba guztiak joanak dira jada,  
hemen beste jendeen zaratotsa aditzen da.

Haizetxo geldiak agerian utzi du harana,  
eta haren erraitik agertzen zait  
aita zaharra, aita zaharra,  
inauskailua eskuan, mahastian dabilelarik.

Hemen hesohol eta ernamuin bakoitzak  
haren gogorapena dakarkidake!

Berriz dira berdatu belardi eta zelaiak!

Ba nabil... urduri, eta urrikaltzen naiz!

1915

### Elurra ari zen neguko lorategietan

(*atovda zamtris baghebs*)

Elurra ari zen neguko lorategietan,

ba zeramaten zerraldo beltza

eta banderak zituen hedarazten

haize desorraztuak.

Bidea zegoen desert,

aurpegi eta mugarik gabe.

Zerraldo bat gehiago zeramaten...

Beleen elkarrizketa:

Hots egik! Konta, oihu ezak!

Elurra ari zen neguko lorategietan.

1916

### Hamahiru urte ditun

(*tzamet'i tslis khar*)

Hamahiru urte ditun eta gatiburik daukan

bihotz urdinuaren amets gaiztoa, -

Jar itzazue hamahiru bala lerroan,

hamahiru aldiz behar baitut hil burua.

Beste hamahiru urte pasatuko dira oraino,

eta hogeita seiak bidean hurbiltzen.

Igitaiak lili garaiak horrela moztuko ditu,

eta denborak negar egingen, eta ene bertsoak ere.

O! Gaztaroa nola pasatzen den-  
lehoiaren nahi urrikalbea!  
Eta guztiok nola biguntzen garen,  
udazkenaren eguzkia ondoan dugunean.

1917

**Errua ardoari batako diote**

*(ghvinos daabraleben)*

Noranahi noalarik,  
atzerrira joanda ere,  
beti darrazkit azken zazpi  
urteotako haizeak.

Nonnahi sarturik ere  
ardoa behartuko didate,  
eta neure tristura ezkutatu ezik  
errua ardoari botako diote.

O, maitia, gurutzean josiko naute,  
galdu zen amets eroa.  
Hire ezpainei mosu, mosu ematen diet  
baina mosutarako al nago ni?

1918

**Ororen gain, poesia**

*(p'oezia up'irveles q'ovlisa)*

Eduki bezate gure arimek elurraren zuria!  
Adiskideok, hil arte ukanen dut nik  
alaitasunaren somatze soil bakarra:  
Ororen gain, poesia!.

Burruka etsiaren biderdian  
inork ez nau nekaturik ikusi sekula,  
pizturik bainauka beti Svetitzkhoverliko argiak<sup>1</sup>:  
Ororen gain, poesia!

Heriotza bezain betierekoa  
da mundu osoan kantuz ibili nahia,  
argiz jantzirik gauzan orotan:  
Ororen gain, poesia!.

(1) *Svetitzkhoverli*: Mtzkheta hiriko XII mendeko katedrale famatua.

Baldin sorterriak laztan ez badegit ere,  
ni hilko naiz poetari doakionez.  
Pozik, kantuz burrukalaria:  
Ororen gain, poesia!

1922

### Gu, poeta georgiarrok

(*txven, p'oet'ebi sakartvelosi*)

Bihortzera dator sentimendu berberaz  
eta itxarote trankilak bere hotsa eginen,  
behin baino gehiagotan uluka baitabilke  
oraindak lur gainean simuna<sup>1</sup>.

Horra, gerra kimikoen segizioa,  
herrietan, zelaietan, hiri eta oihanetan,  
berriz ere ospitalean uskeltzeko,  
negar berrizko uholde-urriak.

Han luebakien labirintoetan,  
ez hazala surtan jar hertsura zaharrak..  
Sakanaz sakan ostotsak oihu eginen,  
sakanaz sakan tximista arituko da, biraka.

Eta beldar erraldoia - tankea,  
balen maluta atergabeak,  
projetoreek sentitu dute, airean,  
aeroplanoen zurrunbiloa.

Erori eginen da, suzko uholde uhertzat,  
ehun zentimetroen izen zaputza,  
sakanaz sakan trumoi hotsez  
sakanaz sakaneko deia entzunen.

Gerraren jeinu suminduak  
herdoeil zaharraren kolore horiaz  
estaliko du zeru purpura,  
ekartzeko, zori gaiztoko eguna.

Betibatasunak, agian, gogait eraginen dio,  
ekialdeko egun epelek ekarriak,  
Mtkvariren bidea birrinduta,  
Tbilisiraino hurranduko, bera suntsitzeko.

(1) *Simuna*: Basamortuko haize-erauntsi gogorra.

Gu gara, Georgiako poetok,  
 egun txarragoak gogoan ditugunok.  
 Guk ba dakigu non jarriko diren  
 Claudel, Jammes, Suarez<sup>2</sup>.

Hantxe jarriko gara, ekaitzaren tokian,  
 odolezko aingerua den lekuan,  
 haize-erauntsi berriei bizia opatuaz  
 Guk, poeta georgiarrok!.

1924

**Haizea hegaz***(Kari hkris)*

Haizea hegaz, haizea hegaz, haizea hegaz,  
 Hostoak haizeaz urruntzen, haizatuak...  
 Zuhaitz-lerroak, zuhaitz ilarak ditu makurterazi  
 Non haiz, non haiz?...  
 Nolako euria, nolako elurra, nolako elurra ari den,  
 Ezingo haut inoiz aurkitu... inoiz ere ez!  
 Hire irudia laguntzat daramat nik,  
 Denbora guztietan, toki guztietan, beti!  
 Zeru urrunari gogoeta ilunak darizkio, zirimiriz.  
 Haizea hegaz, haizea hegaz, haizea hegaz!...

1924

**Neska!***(kalav!)*

O bihotza, sekretua daramak,  
 Ozerua, hire lerroa urdina duk!  
 Mutilak! –Egon, neska!  
 Neskak: –Itsutuko al haiz!  
 Urrunduk ura biraka,  
 laino bisutsa mendian.  
 –Ez– xuxurlatzen du neskak.  
 Ongi dun –mutilak, lasaitzeko.  
 Nahi baduk, eraman ezak ene fardela,

(2) Frantsez poeta ezagunez ari da.

asko falta baitzait oraino.  
 Ekarriko dizkinat zintzilikariak  
 hirira joango naizenean.

1925

## Hilerrriak

(*sasaplaoni*)

Sarkofagotik momia jaiki da. Nolako ixiltasuna. Airea zeta urdina.  
 Orkideak Nilora daitsez, harea-gainean sargoria kexatzen denean,  
 Ez du nahi arima hondarpera dakion, Ramses-en hilobi bila ari da  
 Errege zen bera. Orain hautsa da, mendeen aho zorrotza baztertzeke,  
 Ezin daiteke hipokrita izan, ezina da hautsa ez izatea, eta momiak  
 mendeen lerroa kontaktzen du: eguzki-egunean edo simunean<sup>1</sup>.

1925

## Gaua, zer gertatzen zaik?

(*ghamev, ra mogivida?*)

O, egunero eguzkiak  
 kimeretan amiltzen dira:  
 egunen karabana  
 astiro pasatzen da.  
 Eta amets hura kaosaren  
 bazterrera da heldu.  
 Gaua, zer gertatzen zaik?  
 Haizea, zer duk?

1926

## Gau ilun honetan

(*am bneli ghamit*)

Gau ilun honetan norbait dabil Georgian,  
 Gau ilun honetan norbait ari da kexatzen.  
 Hartaz oroituko gara azken ardo-topa honetan,  
 Topa egitean hura izanzen dugu gogoan.

(1) *Simun*: Basamortuko haize eta hareazko ekaitz gogorra.

Gau ilun honetan panderoaren boza aditzen da  
Begiak zaizkit betetzen negarren ihintzaz.

Goiztiriak irisatu ditu mendi urrunak jada...

Eta bera... oraindik ari da kexatzen gau ilun honetan.

1934

### Azkenengo tren

*(uk'anazk'neli mat'arebeli)*

Bizitzaren bidearen antzera,  
aldegiteko prest dago tren,  
ene esperantza han irteten delarik,  
ene biziaren askatzailea.

Ba dakit nola duen irteera honek izena  
zertarako behar da orain negarra.  
Trenagatik noiz hartu dut nik ba  
urriki eta kupida?

Trena erdilotan dago, laba bezala.  
Trena bost minutu barru irtengo da,  
laguntzera etorriek jaisteko garaia.  
Trena bost minutu barru irtengo da

Horra! higitzen hasi dira burdinazko gurpilak,  
lasterka noa bagoien atzetik, sentimenduz itoa,  
agur egiten dinat sekulakoz-  
sekulakoz agur egiten dinat.

Honelako zorigaitzak zergatik ni jo nau?  
Esperantza guztia beti ere galtzeko?  
Azken agurraren Arte Eder honetarako,  
ez al dago beste inor, poeta baino?

*Itzuli: Xabier Kintana.*

## PABLO NERUDA

### Poema XX

Gau honetan bertso tristenak idatz ditzaket.

Adibidez: "Gaua izarniatua dago,  
eta astroak urrunean dardaizoz daude"

Gau-haizea ortzean jiraka dabil eta  
kantari.

Gau honetan bertso tristenak idatz ditzaket  
Nik maite izan nuen, eta, batzutan, berak ere maite izan ninduen.

Gaur bezalako gauetan ene besoetan eduki nuen.  
Ortze mugagabearen pean anitzetan musukatu nuen.

Berak maitatu ninduen, eta, batzutan, nik ere.  
Nola ez maitatu, bada, bere begi handi-tinkoak!

Gau honetan bertso tristenak idatz ditzaket..  
Jada ez dudala pentsa dezaket, galdu dudala pentsa dezaket.  
Entzun, gau galanta, bera baino galantagoa.  
Bertsoa arimara datorkit huntza larrera gisa.

Zer axola dio nire amodioak ezin gordetzea!  
Gaua izarrez dago, eta bera ez dago nirekin.

Hori da dena. Urrunean norbait kantari dago. Urrunean.  
Nire arima ez dago pozik hura galtzeaz.

Ene soak hurbildu nahiz bere bila dabil.  
Ene bihotzak bilatzen du bera eta ez dago.

Zuhaitzak zuritzen dituen gau bera, da.  
Gu, lehengoak, ez gara, jadanik, berberak.

Dagoeneko, ez dut maite, egia da, baina zenbatetan maite izan nuen.  
Nire ahotsa haizearen bila zegoen belarria ukitzeko.

Beste baterena, beste baterena izanen da lehen nire musuena gisa.  
Bere ahotsa eta soina. Bere begi mugagabeak.

Dagoeneko ez dut maite, egia da, baina zenbatetan maite izan nuen.  
Hain da laburra maitasuna eta hain luzea ahanztura.

Tenore honetako gauetan ene besoen artean eduki nuen;  
ene arima ez dago pozik hura galtzeaz.

Hori guztia berak eginiko azken samina izan arren,  
bertso hauek nik idatziriko azken bertsoak izan arren.

### Aldiari oda

Zure barnean zure adina  
hazten,  
nire barnean nire adina  
ibiltari.  
Aldia erabakikorra da,  
bere kanpaia ez dago dilindan,  
hazten ari da, barnean biltzen  
ur sakona begiradan bezala, eta zure begien gaztain errean  
izpi bat,  
ibai tipi baten  
oinatza,  
izarño ihar bat  
zure ahora igotzen.  
Aldiak jasotzen ditu  
hariak  
zure bilora,  
baina ene bihotzean  
zure urrina  
ezkerrahiena bezala,  
sua bezain bizi.  
Ederra da  
guk bizitua legez  
Egunero  
harri garden izan zen,  
gureztat arrosa beltz izan zen,  
eta ildo hau zure betartean edo eta nerean  
harri da ala lore,  
tximista baten oroipen.  
Nire begiak zure ederrean higatu dira,  
baina zu ere ene begi zara.  
Nik ukitu nuen, ausaz, ene muinpean



zure bular bikoitza,  
baina denek ikusi dute ene bozkarioan  
zure dirdira ezkutukoa.

Maitasuna, zer axola dio aldiak,  
biugar edo galburu paralelo gisa  
nire soin eta zure gozotasunera  
igo zituena,  
bihar iraunaraztea  
hala jalgitzea  
eta bere hatz ikustezinekin  
bereizten gaituen maitasuna ezabatzea,  
azkenean, lurpean izaki bat beraren  
garaipena badamaigu.

(Odas elementales liburutik)

OCTAVIO PAZ

**Hemen**

Nire urratsak honetan

Oihartzunez

Beste kalean

Non

Urratsak entzuten ditut

Igaro kale honetan

Non

Lainoa, soilik, da egiazkoa

(Salamandra liburutik)

**Herria**

Hariak aldia dira

Haizea

Haize-sekuluak

Zuhaitzak aldi dira

Jendea harri da

Haizea

Beregan biltzen da eta ehorzten

Harri-egunean

Ez dago urik baina begiak dizdiz

## EDUARDO CARRANZA

(XII) Ez diezazuket ezer esan  
isiltasunaz,  
ezta hitzez  
ezta ere musika  
etsigabeenaz.

Agian, ilargiaz  
edo eta brioleta urrinaz,  
heze ardoz eta musikaz,  
gauean sufrikari.

Agian, gauaz,  
orri- susmuru  
baino ez denean,  
haize eta izarrekin  
iratzartzerakoan.

Agian, ilargiaz,  
ilargiak balu  
ardo eta brioleta usainik.  
Agian, gau-hitzez  
hitzak beha beleude.  
Ez diezaizuket esan.

*(El olvidado liburutik)*

### Zutaz urdin

Zuregan pentsatzea urdin da, eguerdian  
hara-hona baso urrezkoan ibiltzea bezalakoa:  
nire mintzoan lorategiak jaiotzen  
eta nire hodeiekin zure ametsetan ibiltari.

Aire bigun batek elkartzen eta banantzen gaitu,  
malenkoniazko urruntasuna;  
nire poesi-besoak jasotzen ditut  
zutaz urdin, zutaz mindu eta itxaropentsu.

Zuregan pentsatzea, urdinezko tenore,  
bibolinezko ortzemuga bailitzan da  
edo eta ihazminezko dolu epela.

Mundua kristalezkoa bihurtzen zait,  
eta txintaren lanpararen zehar so dagizut,  
ene pentsamenaren igandezko urdina.

(Azul de tíliburutik)

## ANAIDI SANTUA

ALFONSO SASTRE

Anaidi Santuko kuadrilerook atxillotu nindutenean, ez nenkien zer izan zitekeen hura, eta pentsatu nuen berehala argituko zela han-kasartzea. Nonbait, arlo zibil arrunt bat baino larriagoa zen. (Nahiz, hauek ere, batzutan, izan ohi duten nolabaiteko garrantzia, zeren, jakina baita, Anaidi Santuko kuadrilerook, boterea dutela juzgatu eta exekutatzeko ere, zeina, heriotz zigorra izanik, erruduna arbol bati es-tekatu eta geziz josten baitute hiltzeraino). Gauza da, kasu honetan, kuadrilerook, salbuespenez, garbitasun dogmatikoen zaintzapean ar-dura zuten beste antolakutza baten aginduak betetzen ari zirela; Inki-sizio Santuari buruz mintzo naiz (S.I.), zeinaren ereginaz, esaneko ta dogmaren itzala dudan kristau zahar bat izanik ni, errespetu handi bat sentitzen baitut.

Esanak esan, Sevillako Ofizio Santuko kalabozoan nago eta jakin berria dut, nonbait, sorginkeria prozesu bati buruzko auzia dela.

Galdeketa sufritu dudan bitartean orkatila bihurritu didate hauste-raino.

Jakin nenkien guztia esan diet nere herriko pertsonei buruz —zenbait emakume— zeinak, bait baitirudi sorginkerietara dedika-tzen direla; une batean arnas hartu eta deklarazioa izenpetzeko as-katzera zihoazela, sartu da Goi Inkisidore bat, eta gupidaz nere oin txikitu eta zintzilikatua begiratu du. "Anaiak —esan die S.I.-ko kideei—, esango nuke bortxaz aritu zaretela zorigaiztoko honekin. Ekariezada-zue bere azalpena, irakur dezadan, eta ikusiko dugu ba ote den bide-rik libre utzi eta bere zauriak senda ditzan, ez baitira, azken finean, Kristoren sufrikarioen islada ahul bat besterik, bere gorputzeko min eta zauriena, zeinak ez baitzuten kontsolamendurik ere eduki, iseka eta mespretxua baizik arraza berdineko bere anaien aldetik, judu-za-kurra", amaitu zuen, suzko begi koleratsuak nigan itsatsirik.

Ezin nintzen mintza (nere min haudien eraginez) baina Goi Inkisi-doreari esan nahi nion zer nintzen ni egiaz eta zenbaiterainoko okerra zen ni judutzat hartzea, ez bait nintzen judu, ez juduzale ere, zeren oroitzen bait naiz ez zela haietako bat besterik nere herrian eta ura hi-

la iadanik (Jainkoaren ohore haundienerako) *sine efusione sanguine*, esan nahi baita, sutzarrean erreta.

Ni, berriz, gertakari ikaragarri haiek sorrerazten zidaten beldur eta nahigabez lotuta, oinaze potroan bihurrikatzen nintzen bitartean (ez dut esan ezin nuela ia mugitu, baina gauza da eskuak arantzazko alanbre gisako taula batera estekatuak nituela eta edozein mugimenduk krudelki oinazetzen zizkidala eskumuturrak), Goi Inkisioarek nere deklarapenak aditsu irakurtzen zituen. Horrorez beterik ohartu nintzen haren aurpegiko koloreak zurbil eta lurtsuak bihurtzen zirela eta bere giharreak koleran puzten zirela.

Bapatean puskatu zuen papera eta espartzuko bola bat egin arte zimurtu eta nere hortz tartean sartu zuen; segidan, S.I.ko agenteek zotz bana erabil zuten paper mordo hura irents nezana. "Beraz-zioen Goi Inkisidoreak- gutaz iseka egin nahi duzu? Izango duzu ordaina". Itolarria nabaritzen nuen eta zotz batek sabaia urratzen zidan.

Ez dakit zer egin didaten gero. Kordea galdu dut. Orain gorputz guztia odoletan daukat eta ez dakit zer gertatzen zaidan bizkaezurrean; gauza da ezin dudala mugitu. Agian gaizki neurtu dute nere erresistentzia eta hautsi egin didate; hori izango da, ziurrenik, izan ere mugitu nahi dudanean, ikaragarria baita nere oinazea.

Nere semeekin hitzegin nahi nuke, lagunekin, auzakideekin, estimu haundian baitnaukate eta errore hau argitu, bainan, dudarik gabe, inkomunikatuta nago.

Noiz itzuliko ote dira agenteak nere bila? Galdeketen beldur naiz ez minarengatik bakarrik, baizik eta ez dakidalako zer nahi luketen nik esatea.

Jakingo banu, egon ziur esango nukeela, ezin baitut pairatu egoera latz hau.

Berririo jotzen nautenean, froga bat egingo dut: gogora etortzen zaizkidan pertsona guztien izenak esango ditut, ia entzun nahi dutena asmatzen dudana, baldin eta izen bat bakarrik jakin nahi badute. Baina esperientzia honek emaitzik ematen ez badu, galdutzat jo nezake betirako neure burua, zeren haiek nahi dutena nik esaldi ba jaulkitzea baldin bada, nondik hasi? Hainbeste dira hitzak eta hainbeste haien konbinazio posibleak! Esaldi arrunt batekin konformatuko balira, sikira! Orduan saia ninteke sujeto multzo bat konbinatzen, aditzak (transitiboak, ez transitiboak), predikatuak edo osagarriak (zuzenak, zeharkakoak eta zirkustantzialak), baina inoiz ahaztu gabe, sujetuaren

lagun daitezkeen genitibo posibleak. Baina, esaldi konposatu baten bila baldin badabilta? Mendeko bat?

Ez dago dudarik, hitz posibleen zerrenda osatu beharrean nago. Esate baterako, lehen esan ditudan izenak, arloko sujeta oso posible-tzat jo behar ditut. Aditz gisan, “konspiratu”, “biraoak jaurtiki”, “akelarretara joan”, “akabatu”, “su eman”, “pertsekutatu”, “apurtu”, “bortxatu”, etab... Predikatu gisan, “izan” aditza erabiltzen dudanera-ko, honako hitzak saiatuko ditut: “sorgin”, “asesinoa”, “juduzale”, “po-zoi emaille”, etab.; eta aditz trantsitiboen kasuan, hau da “abakatu” eta gisakoetan, osagarriz tzat “haurrak”, “kristauak”, “inozenteak” eta antzekoak erabiltzen hasiko naiz, eta hemen zehatz ditzaket burura etortzen zaizkidan hil edo desagertutako zenbait haurren izenak. Adi-bidez, Pedro González Torres-ek Jualianillo Vega haurra erahil zuen. Edota, Luis de Andrade eta Garcia “juduzale” da. Edota, “Maruja Pe-rez Lobo”, larunbateko akelarretara joan ohi da” etab...

Jakina izugarrizko lana dela —eta zikina eta iguingarria, ondo da-ki— nere hau, baina sufrimenduaren beldur naiz! Sufrimenduaren beldur, ene Jainkoa!

*Itzuli: G. Etxeberria.*

## GIZASEME ETA EMAZTEKIAREN LAGUNA

MIGUEL MIHURA

Gizona eta emazteak guztiz nahigabetuta zeuden paradisuari, zeren, bakarrik egon ordez, egon behar zuten bezala, beste jaun bat, biboteduna, baitzegoen han, zeinak hoteltxo bat ere egina zuen, oso polita benetan eta justu hain zuzen, Ongia eta Gaizkiaren aurrez aurre.

Jaun hark, altua, indartsua bera, bibote iletsu eta bide Injeniarri antzekoak, Jeronimo zuen izena eta zer eginik ez zuenez gero eta gizagaixoa han, paradisuari, aspertu egiten zenez gero, irrikan zegoen gizaseme eta emaztekiaren lagun egiteko eta arratsaldetan edozein ñimiñokeriaz mintzatzeko.

Egunero, oso goiz, jardineko orman agertzen zen eta gizonkiro agurtzen zituen, fresoiak eta landatu zituen fruitu arbolak, iadanik haixeak, erregariatzen zituen bitartean.

Gizonak eta emaztekiak, hozki erantzuten zioten, jakin bai baitzekiten ez zela Paradisua haientzat egina eta gizaseme bibotedun hark ez zuela han egoteko eskubiderik eta gutxiago pijama jantzita.

Don Jeronimok, nonbait, ez zekien Paradisuari gertatu behar zenetik ezertxo ere, eta xaloki, auzakideekin adiskidantza egin nahi zuen, zeren egia baita, landako alderdi hauetan, batasun piska bat egon ezik, ez dela ongi pasatzen.

Arratsalde batez, landa guzti haietan barna paseo bat bakar-bakarrik eman ondoren, gizona eta emazteak zeuden zuhaitzera hurbildu zen. Gizona eta emazteak aharrasika zeuden asperdunaz, baina beti ere gizon-emazteki paper garrantzitsua beteaz.

—Aspertu egiten al zarete zuek, auzakideok? —galdetu zien xeratsu.

—Ppts... Hor nonbait.

—Ez al da zuekin inortxo bizi...?

—Ez, ezer gehiagorik ez. Geu gara gizaseme lehen bikotea.

—A! Zorionak. Ez nenkien ezertxo ere —esan zuen Jeronimok.



Eta lanpostu on bat topatu izan baitluten bezala zorionak eman zizkien. Gero, guzti hari garrantzi haundirik eman gabe, zera erantsi zuen:

—Bada, zuek nahi baldin baduzue, elkar gaitzke afalondoan eta tertulia piska batean jardun. Hemen hain dibertsio gutxi baitago eta dena hain triste...

—Bueno —onartu zuen gizonak. Atsegingarria izango da.

Eta ez zuten afalondoan elkartzea beste erremediorik izan, zuhaitz azpian, zumitezko besaulki batzutan jarrita.

Hiruko bilera hark paradisuko giro guztia hankazgora jartzen zuen. Ez zirudien ez paradisu, ezer antzekorik ere. Recoletos aldean, Rosales edo Castellanan bertan egindako bilera zirudien. Hiru pertsonaz osatutako irudi hura magotzera saia zitekeen pintoreak, zail zutekeen inoiz hura Paradisua zitekeenik irudikatzea, nahiz bilutsik eta sugea arbolan biribilduta pintatu.

Horrela iadanik, bibotedun jaun harekin, dena itxuragabe izurratuta geratzen zen.

Gizon-emaztekiak, ezin zuten ulertu logika eta arrazoitik hain urruti zegoen egoera hura. Ez zekiten zer egin. Horrek bere proiektu eta asmo guztiak hankazgora jarri zizkien. Paradisuko pertsonai berri eta zentzugabeko hark, bere plan guztiak desegin zizkien; Gizateria guztian hainbesterainoko zeresana emango zuten plan haiek.

Sugea ere odoltxarreko zegoen eta berak hainbesterainoko garrantzia zuen errepresentazio hartan noiz eta nola parte hartu asmatu ezinik.

Goizetan, arratsaldetan eta gauetan Don Jeronimok paseotxo bat ematen zuen haiekin, eta hantxe eserita, tertulian, ezer gutxi eta interes gabekoez mintzatzen ziren, zeren, egitan, garai hartan, ez baitzitekeen ezertaz mintza, ez baitzegoen zertaz jardun ere.

—Ba... bai, ziotsaten.

—Ba, hori.

—Ah!

—Ardia.

—Ahuntza.

—Egia da.

Dena den, ez zuten hain gaizki pasatzen. Gizon-emaztekiak, poliki poliki eta inork jakin gabe, hanka sartu zuen jaun harekin olgatuta,

emeki-emeki ahaztu zuten bata gizona eta bestea emaztekoa zirela ere. Areago, Don Jeronimori afektua hartu zioten, zeina, halarik ere, atsegina eta ponpoxoa baitzen. Eta hirurak batera ibilaldiak egiten zituzten ibaietan zehar, ibarretan barna eta algara zegioten han hain penarik gabe bititzeaz, ez disgusto, ez kontraesan eta ez grina txar.

Behin batean, Don Jeronimok galdetu zien:

—Zuek, ezkontuta al zaudete?

Eta haiek ez zuten jakin zer erantzun, ez baitzekiten hortaz ezer-tzo ere.

—Ez al zarete senar-emazte?

—Ez. Ez gara —aitortu zuten azkenik.

—Orduan, anaia-arrebak zarete?

—Bai, horixe! ihardetsi zuten zerbait esateagatik.

Geroztik, Don Jeronimok, bisitak ugaritu zituen. Alaiago bihurtu zen. Gehiago presumitzen zuen. Unero pijamaz aldatzen zen. Txisteak kontatzen hasi zen eta emaztekiak algara egiten zuen txiste haiekin. Emaztekiari beiak eramaten hasi zen. Eta anderea, oso pozik jartzen zen behiekin.

Emaztekiak hogei urte zituen eta gainera Udaberria zen. Gertatzen zen guztia naturala zen.

—Nik zu maite zaitut esan zion don Jeronimok berari inulabar batean, eskua ferekatzen zion bitartean.

—Baita nik ere zu —erantzun zuen emaztekiak, zeinaren haserako ezinikusia, pelikula guztietan bezala, maitasun bihurtu baitzen.

Hurrengo astean, emaztekoa eta bibotedun gizaseme hura ezkondu egin ziren.

Berahala bi edo hiru ume koskor eduki zituzten, zeinak laster batean oso gizenak egin baitziren, izan ere, Paradisua, hain sana izanik, ezinobe gertatzen baita osasunerako.

Gizona, don Jeronimo estimu haundian eduki arren, dexente disgustatu zen, ulertzen baitzuen egoera hark ez zuela horrela gertatu behar; hura gaizki zegoela, alegia. Eta haur haiek jardinean jolasean, ez zirudiela hark Paradisua, gutxiagorik ere, hain polita izanik Paradisua behar bezalakoa denean.

Sugea eta gainerantzeko zomorro guztiak ere, asko haserretu ziren, zeren hura ulertezina zela esaten baitzuten, eta pijamadun gizon

haren erruz, ez zitzaiea aurrez egindako guztia gertatuko, hain interresgarri, fin eta sotila izan zitekeena.

Baina konformatu egin ziren, ez baitzuten beste erremediorik, izan ere gauzak horrela gertatzen direnean, nahitaezkoak baitira eta ez dute erremediorik.

Hitz gutxitan, pena bat izan zela.

*Itzuli: G. Etxeberria.*